Hernaniko Udala HERNANIKO UDALAK BABESTUA

EUSKALTEGIEN TXOKOA 33. ZENBAKIA

# AEK euskaltegia









# Malleus maleficarum (sorginen mailua)

Duela gutxi titulu berezi hau duen Ura Iturralderen artikulu hauxe irakurri genuen 7K aldizkarian.



Astero berri bat eraman behar dugunez gelara, nik hau aukeratu nuen taldekideei kontatzeko oso kuriosoa iruditu zitzaidalako. Gainera, artikuluak argazki zoragarriak ditu. Ile gorriei buruzko erreportaia zen.

Kolore gorriak infernua sinbolizatzen omen du. Erdi Aroan esate baterako, emakumeak sorgintzat jo eta sutan erretzen zituzten. Kolore gorria suarekin lotuta dago eta sua infernuarekin. Herrialde batzuetan zorte txarra ematen zuten ilegorriek eta beste kultura batzuetan kontrakoa. Ilegorrien inguruan uste asko sortu izan dira historian zehar.

Antzinako Grezian uste zuten ilegorriak hiltzean banpiro bihurtzen zirela. Hitlerrek, adibidez, ilegorrien arteko ezkontzak debekatu zituen. Mito rabiniko baten arabera, Jainkoak Lilith sortu zuen Adamekin batera. Historian zehar Lilith emakume gaizto eta ilegorri gisa irudikatu izan da. Ilegorriak katuetatik omen datoz, gainerakoak tximinoetatik. EHUko zientzialari batzuek 2013an frogatu zuten ile gorriaren genea V60L dela. Duela 50.000 urte agertu omen zen gene hau. Gizakiak Afrika utzi eta Europako iparraldera mugitu zirenean agertu omen zen. Munduko biztanleriaren %2 baino ez da ilegorria eta gehienak Irlandan, Eskozian eta Rifen bizi dira.

Titulua oso berezia zenez, Wikipedian begiratu genuen eta «Malleus Maleficarum» (Sorginen Mailua) tratatua deskubritu genuen. Badirudi Inkisizioaren eskuliburu bilakatu zela. Tratatu honen egilea eztabaidan dago: Heinrich Kramer dominikar apaiza edota Jacob Sprenger apaiza. Biak ere alemaniarrak ziren.

*Egilea: Txuri*

# Chat GPTak zenbat daki ilegorriei buruz?

Pasa den egunean inteligentzia artifizialari buruz hizketan aritu ginen eskola batean eta Chat GPTari buruz hitz egin genuen.



Idatz textu labur bat ilegorri eta albinismoaren giza marginazioa.

ChatGPT

Ilegorria eta Albinismoa: Marginazioaren Historia

Ilegorria izatea edo albinismoa izatea giza espaziora, eta hainbat kultura eta gizartetan sortutako ideiok eragina izan dezakete pertsona horiek bizitzeko eta parte hartze soziala hartzean. Ilegorria da ileak, begiak, eta azalaren kolorea falta dezakeen edozein egoera. Hau da, pigmentuaren faltagatik ile beltzak eta begi beltzak izan ditzake, eta azala argia edo gorrixka izan daiteke.

Ilegorriak edo albinosak direnen egoera marginalizazioa izan dezake, eta hau, askotan, kultura eta gizarteen artean sortutako ikuspegi eta konportamenduetatik eratzen da. Hainbat kulturan, ilegorriak ikuspegi mistiko edo magiko bat hartzen dute, eta hauek askotan ikus daitezke baita errudun eta arriskutsu bezala ere. Hauetatik sortutako

Gai honek zalantzak sortzen dizkigu. Zalantzak eta dilemak. Momentu honetan euskaraz elikatzen ari gara chata baina hori egin behar al dugu euskaldunok?

ChatGPTari ariketa hauxe eskatu genion: Idatzi textu labur bat ilegorri eta albinismoaren giza marginazioari buruz.

*Ilegorriak eta Albinismoa: Marginazioaren Historia (titulua chatak berak sortu zuen)*

*Ilegorria izatea edo albinismoa izatea giza espaziora, eta hainbat kultura eta gizartetan sortutako ideiok eragina izan dezakete pertsona horiek bizitzeko eta parte hartze soziala hartzean. Ilegorria da ileak, begiak, eta azalaren kolorea falta dezakeen edozein egoera. Hau da, pigmentuaren faltagatik ile beltzak eta begi beltzak izan ditzake, eta azala argia edo gorrixka izan daiteke. Ilegorriak edo albinosak direnen egoera marginalizazioa izan dezake, eta hau, askotan, kultura eta gizarteen artean sortutako ikuspegi eta konportamenduetatik eratzen da.*

*Hainbat kulturan, ilegorriak ikuspegi mistiko edo magiko bat hartzen dute, eta hauek askotan ikus daitezke baita errudun eta arriskutsu bezala ere. Hauetatik sortutako estereotipoak eta kezka larriak jasotzen dituzten albinosak, giza komunitateetan sartu eta parte hartzea zailagoa izan dezakete. Era berean, albinismoa giza komunitateetan izan dezakeen marginazio soziala ere sorrarazi dezake. Pertsonak besteengandik desberdintzen direnean, hainbat diskriminazio-formak gertatzen dira, hala nola isladura, burla, edo sormen falta. Albinosak, besteak beste, eguneroko bizitzan ere errudunagoak izan daitezke, non ikus-entzunezko sistema desberdinak erabiliko diren. Hau guztia, bai ilegorrienak bai giza komunitatearenak, albinismoaren inguruko eduki informatibo, sensibilizazioa, eta hezkuntza bidez aldatu ahal da. Bereziki garrantzitsua da albinismoaren inguruan hedatutako informazioa eta ikuspegi positiboa bultzatzea, hainbat kultura eta gizarteetan jasotako idei erronkatsu eta negatiboen kontra. Hori dela eta, giza komunitateak albinosak onartzea, errespetatzea, eta laguntzea bermatu behar du, horrela inklusioa eta giza eskubideen errespetua bultzatuz.*

Ondorio gisa esan dezakegu chatak oraindik ez duela ongi egiten euskaraz, asmatu egiten dituela hitzak, *hainbat* erabiltzen duenean ez duela mugagabea ongi erabiltzen...

Baina dilema gehiago ere sortu zaizkigu: Argi dago inteligentzia artifiziala gure bizitzan presente dagoela, ez dela gaurkoa, gure bizimodua aldatzen ari dela... Alde onak eta alde txarrak ikusten dizkiogu honi:

-Alde onak: informazioa zabaldu egiten du; azkarra da; informazioa leku desberdinetatik har dezake eta erantzuten dizunarekin ados ez bazaude ,ahal diozu berriro galdetu;

-Alde txarrak: ematen duen informazioa interesatua da; gizarteari hausnartzeko ohitura kentzen dio; aditua ez bazara arriskua daukazu, informazio iturriak interesatuak direlako, manipulatua izateko.

Orokorrean ezin dugunez progresoa gelditu, ez gara konturatzen gurean urte asko daramatzala IAk. Ez ote zen inteligentzia artifiziala Alejandriako liburutegian sortu? Nork zuen han ere informazioaren boterea?

*Egileak: Begoña eta Joxemi*

# Azaroan manifaz manifa

Nola irudikatzen ote gaituzte gazteek jubilatuta gauden adinekoak? Seguru asko, ez gaituzte ez euskaltegian, ez kalean aktibo irudikatzen.

Agian «Salvame» ikusten, josten, bizkotxoak egiten, medikutan sartuta, bilobak zaintzen, senarrak zaintzen... imajinatzen gaituzte. Baina errealitatea oso desberdina da batzuetan. Gure kasuan adibidez, azaroan zenbat manifa eta kontzentrazioetan parte hartu dugun kontatuta, zer pentsatua eman behar lizueke.

Urri bukaeratik azarora *jo ta fuego* ibili gara manifaz manifa. *Oneka* pentsiodunen elkarteko kontzentrazioa eta prentsaurrekoarekin hasi genuen hilabetea. Ondoren, Tolosan, Osasun publikoa defendatzeko elkarretaratu ginen; Azaro hasieran Palestinaren aldeko bi manifestaziotan parte hartu genuen (Donostian eta Hernanin); Azaroaren 4an Bilbon euskararen Kontseiluak antolatutako agerraldian parte hartu genuen; Azaroaren 30ean Greba feminista orokorrean parte hartu genuen; Eta horiek gutxi ez eta astelehenero Pentsiodunen kontzentrazioetan eta jarraian egiten den manifan parte hartzen dugu.

Kopeteraino gaude manifa hauetako asko Bilbon egiten dituztelako. Guk gipuzkoar gisa lehenago atera behar dugu etxetik, beranduago bueltatzen gara, bidaiak ordaindu behar ditugu, etab. Zenbat urte gehiago pasako ditugu Bilbora joaten?

Horrelako agenda genuela imajinatzen al zenuten?

*Egileak: Pili eta Mila*



# Garraio publikoaren erabilera dela eta

Gaur egun, nahiz hiria izan, nahiz herria izan, ez dago inon aparkatzeko lekurik.

Dena kotxez beteta dago, eta horregatik, dudarik gabe, garraio publiko gehiago erabili beharko genuke.

Dena dela, autobusa azkarragoa da kotxez ibiltzea baino, zeren eta autobusak bere bidea dauka eta horregatik beti garaiz iristen da.

Horrez gain, autobusa oso garbia da, ez du kutsatzen, eta gainera, gaur egun autobus elektrikoak har daitezke, izan ere, oso erosoak dira.

Laburbilduz, autobusa erabiltzea garrantzitsua da, dudarik gabe, alde nago autobusa hartzearekin. Dena dela autobusa dohain izan beharko litzateke, zerga asko ordaintzen ditugulako.

*Egilea: Txus*



# ELKARRIZKETA Aktorea: Vito Rogado

**Zeinek parte hartu zuen zurekin?**
Naiara Arnedo, Sara Cozar, Leire Ruiz, Getari Etxegarai eta Aitziber Garmendia dira beste aktoreak.

**Testu osoa ulertzen duzu edo memorizatzen duzu ulertu gabe?**
Beti testu osoa ulertzen dut, bestela ez da posible. Lehenengo itzulpena irakurtzen dut, eta ulertu ondoren, buruz ikasten dut.

**Zenbat denbora eduki zenuen testua ikasteko? Nolakoa da testua memorizatzeko zure metodoa?**
Ez da normala, baina aste bat edo hamar egun eduki nituen sustituzioa zelako. Orduan, denbora gutxi izan nuen. Normalean entseguak dauzkagu, eta hilabete edo bi hilabete izaten dugu ikasteko.

Ordu asko ikasten, eta nire lankide Itziar Atienzak testua grabatu zuen eta nik entzun. Horrela testuaren pronuntziazioa errazago ulertzen da; denbora gutxi daukazunean. Gainera, hika erabiltzen da eta nik ez nuen ezagutzen.

**Nola sentitzen zinen obra egiten ari zinenean? Nola sentitzen zinen proiektu horretan?**
Pixka bat insegura nengoen, baina lankideek asko babestu ninduten. Obra oso dibertigarria eta korala da, eta horrek errazagoa egiten zuen.

**Vito, zein da zure hurrengo proiektua?**
Bi proiektu polit dauzkat. Tantakarekin «Lucha y metamorfósis de una mujer», eta Vaivenekin «El patio de las moredas». Bi antzerki obra dira eta aurten ikusi ahalko duzue.



*Egilea: Eguzkitalde*



# Suizidio eskubidea

Gaur egun gero eta gazte gehiago suizidatzen da. Zer gertatzen ari ote da? Eskubide hori aldarrikatu dezakegu?

Oso gai zaila de arren, gai hau landu genuen euskaltegian. Gure bizitza gurea bakarrik al da? Eta gure bihotzean dauden senideekin eta gure lagunekin berdina esango al genuke? Alegia, guk ere mina sentitzen dugu ezagun batek suizidatzea erabakitzen duenean... Beste modu batera esanda, horra iritsi baino lehen, ez al da hobea lagun mina espezialista batengana eramatea?

Laburbilduz, gure bizitza gurea da, gure esku dago, baino ez gara egoistak izan behar. Bidaia on, lagun!

*Egilea: Juanma*

# Ikasleek egindako memeak













# Gurutzegrama

Jesusaren taldea

**Horizontalak**

**1.** Daukazunean, ondo sentitzen zara. Zientziaren ama da. Beti aurrera egiten laguntzen duen sentimendua da.
**6.** Arazorik gabe hitz egiten duena.
**7.** Euri asko ari duenean, eta tximistak eta trumoiak daudenean.

**Bertikalak**

**2.** Hegalak eta kolore asko dauzkan zomorroa da.
**3.** Helburu bat lortzeko egiten dena.
**4.** Pertsona hilak dauden lekua. Egun batean denok egongo garen lekua.
**5.** Adjektibo gabe uzten duena.
**8.** Ausarta ez dena.




**Gurutzegramako hitzak**

1. Itxaropena
2. Koldarra
3. Ekaitza
4. Hilerria
5. Borrokatu
6. Pinpilinpauxa
7. Lotsagabea
8. Zoragarria







